

EGARRI NAZ



Lurra dago ikaraz, gach egiñen bildurraz,
Kurutzean josirik gaur Erru-ezduna,
Erri ligoetua odolez aseturik,
Izarrerria iya osoro illuna.

Fariseo ta Eskribak zuena da garaiza,
Egur lotsagarrian Jesús dago illten;
Aitalenen ta lgarlak kantau kantau gloriak,
Anchiñako eskintzak bete dira emen.

Kalbario-gañean erru baga illtera,
Doianari uste dot jakola entzuten,
Illten naz zuek gaitik, pekatua oinpeturik,
Zuek gaitik illten naz, zuek maitetuten.

Sortitza makurtzen da Jaubearen aurrean,
Negarrez gauko gachen damu ta atsakabaz,
Begiak jasoten dauz Jesusek miñen miñaz,
Borreruak entzuten deutze: «Egarriz naz».

¿Egarriz aurkietan zara ichasogiña?
¿Egarriz aurkietan iturrigillea?
¿Egarriz arnaseaz odehyak urraturik,
Sortu bazeinke noz nai euri ugaria?

¡O! Jaungoiko andia, ezin nik aditu dot,
Une artako zure miñen miñtasuna,
Baña fedeak diñost egarriz egoala
Guganako daukazun ondonaitasuna.

Egarriz, egoala esku oñak burdiñaz,
 Egarriz, Lauburuan amarrau artean,
 Egarriz, iru untzez egarriz josi arte,
 Egarriz jarte arren gu libertadean.

Egarriz, odolezko iturriak isurten,
 Egarriz, gu eurakaz garbitu gintezan,
 Egarriz,ugarrezko amodioz erretan,
 Egarriz, sartu nairik danok zeruetan.

Nekearen egarriz, arintzeko gizona,
 Gerrearen egarriz, baketzeko bera;
 Illteko egarriaz, betiko biztu dedin,
 Ill ez dedin egarriz, pekatuz aurrera.

Egarriz, zareana gloriako argia,
 Mundu illunpetsua dozuna argitzen,
 Zeure eskuz zuzentzen dozuz goi zabalak ta
 ¿Egarriz zelan baña zara aurkituten?

Loren lurrenetan nik dakust zure arnasa,
 ¿Egintzak zure aulki ikusten badodaz?
 ¿Chirrigolan izarrak oinpean doatzuz ta
 Gizona zelan ez da samurtuten zugaz?

Beretzat ¿etzenduzan egin zeru ederrak?
 Beragaitik ¿etzara lurrera jatsiten?
 Bere amodioak ¿alan jarri etzaitu?
 Bere amorez ¿etzara gaur egarrituten?

Bere amodioak bestek etzaitu Jauna,
 Beste gauzak etzaitu josi Kurutziaz,
 Bera zeruratzeko daukazun egarriak,
 Jauna esan eragin deutsu: «Egarri naz».

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

